Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1411

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 13koa, Immigrazioko zuzendariarena, 2009ko azaroaren 16ko Ebazpenaren babesean Fundación Fondo Formación-i emandako dirulaguntza baliogabetzen duena. Izan ere, 2009ko azaroaren 16ko Ebazpenaren bidez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko martxoaren 5eko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak ebatzi ziren, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak burutzeko laguntzak arautzen dituen apirilaren 17ko 61/2007 Dekretua garatuz.

AURREKARIAK

1.– 2009ko martxoaren 23an, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko martxoaren 5eko Agindua argitaratu zen EHAAn. Agindu horrek 2009rako emakume etorkinek sustatutako eta/edo haiei zuzendutako programak garatzeko dirulaguntzak arautzen ditu, betiere emakume horien ahalduntzea sustatzeko eta haien eskubideak berdintasunean baliatzeko aukera bermatzeko helburua badute.

2.– Lehenengo puntuan adierazitako Aginduaren babesean bildutako dirulaguntza-eskabideez hartutako erabakia jakinarazten duen Ebazpena eman zuen Immigrazio zuzendariak 2009ko azaroaren 16an; Ebazpen horren bitartez, Fundación Fondo Formación-i 7.500 euroko dirulaguntza eman zitzaion, «Gaurdanik» proiektua garatu ahal izateko. (EMA-20099E/0047).

3.– 2010eko urtarrilaren 12an, Fundación Fondo Formación-ek idazki bat bidali zuen Immigrazio Zuzendaritzara, jaso duten dirulaguntzari uko egiten diotela esanez.

Horiek horrela izanda, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Diruz laguntzeko proposatutako «Gaurdanik» ekintza burutzeko Fundación Fondo Formación-i emandako dirulaguntza baliogabetzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan, eta baita dirulaguntzen eta laguntzen erregimena arautu eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legea aldatzen duen 7/1997 Legearen 49.2 artikuluak dioena bete dadin ere.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

1411

RESOLUCIÓN de 13 de enero de 2010, del Director de Inmigración, por la que se anula la subvención concedida a Fundación Fondo Formación al amparo de la Resolución de 16 de noviembre de 2009, del Director de Inmigración, por la que se procede a resolver las solicitudes se subvención presentadas al amparo de la Orden de 5 de marzo de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, en desarrollo del Decreto 61/2007, de 17 de abril, por el que se regulan las ayudas para la realización de actividades en los ámbitos de la inmigración y la convivencia intercultural.

ANTECEDENTES

1.– Con fecha 23 de marzo de 2009 se publicó en el BOPV la Orden de 5 de marzo de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de convocatoria para el año 2009 de ayudas dirigidas a la ejecución de programas promovidos por mujeres inmigrantes y/o, dirigidos a estas, que tengan como finalidad incentivar su empoderamiento y garantizar el ejercicio de sus derechos en igualdad.

2.– Con fecha 16 de noviembre de 2009 el Director de Inmigración dictó Resolución por la que se procede a resolver las solicitudes de subvención al amparo de la Orden mencionada en el punto primero, concediéndosele a través de la misma a Fundación Fondo Formación una subvención por importe de 7.500 euros por el concepto siguiente: «Gaurdanik». (EMA-20099E/0047).

3.– Con fecha 12 de enero de 2010 se ha recibido en la Dirección de Inmigración escrito remitido por FUNdación Fondo Formación en el que se pone de manifiesto la renuncia a la subvención concedida.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Anular la subvención concedida a Fundación Fondo Formación para la realización de la actividad propuesta para ser subvencionada «Gaurdanik».

Segundo.– Ordenar la publicación de la presente Resolución, para su general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme a lo estipulado en el artículo 49.2 de la Ley 7/1997, de 19 de junio, por la que se regula el régimen de subvenciones y ayudas y se modifica la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen eta interesatuak haren kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango dio Gizarte Gaietako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Erkidearen Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 13a.

Inmigrazioko zuzendaria,
MIGUEL ÁNGEL GONZÁLEZ MARTÍN.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá la persona interesada interponer recurso de alzada, ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de recepción de la presente notificación, de conformidad con lo previsto en los artículos 114 y 115 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2010.

El Director de Inmigración,
MIGUEL ÁNGEL GONZÁLEZ MARTÍN.